

Gatz Harana. Añana Gesaltza Salt Valley of Añana

Lekua: Añana Gesaltza (Araba)
Modalitatea: ingurumena eta ondarea berreskuratzea
Helburua: gatzaga berreskuratzea. Gatz-ekoizpena
Egunak: uztailaren 1etik 15era // uztailaren 16tik 30era
Adina: 18-25 urte
Mota: nazioartekoa
Hizkuntza: ingelesa. (Derrigorrezkoa da ingelesez ondo hitz egiten jakitea.)
Plazak: 18
Kuota: 72 €

Añana Gesaltzako Gatz Harana munduko kultura-paisaiarik esanguratsuenetakotzat jotzen da. Izatez, Monumentu Historiko Nazional izendatu zuten 1984an, eta orain Gizadiaren Ondare bilakatzeko beharrezkoak diren izapideak gauzaten ari dira. Ondorioz, 2000 eta 2004 artea, Plan Zuzendari bat burutu zuen diziplinarteko talde zabal batek, eta multzo osoa berreskuratzeke pausoak eta jarraibideak proposatu ziren.

Añanako Gatz Haranaren Fundazioaren helburu nagusia Gatz Haranaren eta bere ingurunearen etorkizuna eraikitzea da. Horretarako, hiru lan-ildo nagusi abiarazten ari dira. Lehenengoa, gatz-ekoizpen azpiegiturak osoki zaharberritzea eta, hartara, Gatz Harana paisaia kulturala bere osotasunean berreskuratzea. Bigarrena, gatz-ekoizpena abiaraztea, bere irudia bultzatzeko, kalitaterik oneneko gatz-ekoizteko eta Gatz Haranaren etorkizunari laguntzeko. Hirugarrena, bisitaldi turistikoekin, ikerketarekin, prestakuntzarekin, esperientziak sortzearekin eta ikastaro, biltzar eta azokak antolatzearekin lotutako kultura-jarduerak garatzea.

Añanako Gatz Haranaren Fundazioak 2011ko udan nazioarteko auzolandegia hartzea proposatu du. Horren bitartez, mundu osoko gazteek armazoiak eta plataformak zaharberritzeko lan zirrargarria ikasiko dute –hain zuzen ere, gero gatz-ekoizteko erabiliko direnak–, bai eta gatz-ekoizteko paisaia kultural historiko baten barruan ekoizten ere. Bertatik paseatze hutsa esperientzia arras interesgarria da.

Estekak ikusteko, egizu sakatu "Ctrl" eta egizu klik testuaren gainean
Informazio gehiago:

<http://www.vallesalado.com/en/>

<http://www.cuadrilladeanana.es/en/cada-punto-de-interes.php?identif=valle-salado>

AUZOLANDEGIAREN DESKRIBAPENA

Gatz Harana berreskuratu eta artazeko lanetan aktiboki parte hartzeaz gain, auzolandegi honetan ariko diren gazteek gatz ekoizten ikasiko dute, gazketarien eskutik: ur-sorburuetako gatzuna erabiliko dute, eta, eguzkia eta haizea baliatuta, lurrinketa naturala gauzatuko da. Horrela, gatz-kristalak eratuko dira bai gatzunaren gainaldean, bai eta hondoan ere.

Gatz-motak bereiziko dituzte, eta, batetik, gatz ekoiztiko dute, eta, bestetik, itsas-gatz garbia. Ekoizpen-metodo hori berori izan da Gatz Haranean hainbat belaunaldiz erabili izan dena.

Azken helburua da haraneko gazketariak urte osoan egiten dituzten lanen berri izatea –izan ere, gatzaren ekoizpena urtaroei oso lotuta dago— eta haranean, gatz-sailak eraikitze erabili diren tekniken nondik norakoak ikastea.

LANAREN HELBURUAK ETA DESKRIBAPENA

Ingurumenean esku hartzeko eta ondare historikoa berreskuratzeko proiektu honen helburuak honela labur daitezke:

- 1.- Hainbat jatorritako gazteei bizikidetzan eta elkar ezagutzen aritzeko aukera ematea, elkarrekin gauzatu beharreko boluntario-lanaren bitartez. Horri esker, aurrejuzkuak gainditzen dituzte.
- 2.- Gizartearengan eragina izango duen lan bat gauzaten laguntzea, komunitatearen onurarako izango dena. Lan hori ingurumenari, elkartasunari, lankidetzari eta abarri buruzkoa izan daiteke.
- 3.- Animazio-programa taxutu eta gauzatzea, jarduera garatuko den lekua eta parte-hartzaileen adina kontuan harturik.
- 4.- Añana eta bere txoko apartak ezagutzea, kirol- eta kultura-jardueren bidez.
- 5.- Jarduerari esker, elkarlan- eta adiskidetasun-giroa sortzea.
- 6.- Gazte guztien parte-hartzea eta inplikazioa sustatzea.
- 7.- Dinamiken bitartez, parte-hartzaile guztiengan sormena eta espiritu kritikoa sustatzea.

Lana ondokoetan oinarrituko da, batik bat:

- Gatz Haranean garatzen diren lanetara gerturatzea, oro har.
- Kristalizazio-plataformak garbitzea eta zaharberritzen ikastea.
- Gatz tradizionalki ekoizteko lanei buruzko ezagutzak.
- Plataformetan kaltetuta dauden egiturak kontu handiz desmuntatzeko ezagutzak. Halakoetan, horiek artatzeaz arduratzen diren teknikariek lan egingo dute.

ANIMAZIO JARDUERAK

Animazio-taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, auzolandegiko partaideen eta auzolandegia hartuko duen komunitatearen arteko harremanak sendotzeko eta lanak garatuko diren ingurunea hobeto ezagutzeko.

Gainera, zenbait ekintza prestatuko ditu Euskal Herriko kultura eta ohiturak ezagutarazteko (kirol-jarduerak, jolasak, txangoak, bisitaldi kulturalak...).. Animazio-taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- Lo egiteko zakua
- Dutzarako eta igerilekurako toalla
- Berokiak eta euritako arropak
- Mendiko oinetakoak eta kirol egitekoak
- Kapelaren bat eguzkitarako
- Eguzkitarako betaurrekoak
- Bainu-jantzia
- Bizkar-zorroa edo motxila txikia, txangoetarako

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO DOKUMENTUAK

Parte hartzaile bakoitzak eraman beharko du:

- NAN edo atzerritar-txartela edo pasaportea
- **Osasun Txartel Indibiduala** (Europar Batasuneko beste herrialde batetik datozenek Europako Osasun Txartela ekarri beharko dute)

AUZOLANDEGIARE ETA OSTATUAREN KOKAPENA

Auzolandegiaren kokapena: Añana Gesaltzan, Gasteiztik 29 km-ra.

Ostatua: Palacio de los Ozpinas hotel eta jatetxean. Auzolandegitik oso gertu dago; beraz, oinez joan daiteke bertara, inolako garraio biderik erabili behar izan gabe.

AUZOLANDEGIAN HASTEAK

Txanda bakoitzaren lehen egunean, auzolandegiko arduradunak parte-hartzaileak jasoko ditu ordu jakin batean. Ordu horretarako iritsi ezin denak —betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio—, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

ARGIBIDEAK ETA HARREMANETARAKO TELEFONOAK

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel: **945 01 95 01- 945 01 95 36**
- Helbide elektronikoa: gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehenago, komenigarria da auzolandegietako arauak ezagutzea. Ikusi <http://www.gazteaukera.euskadi.net> webgunean (ikusi Auzolandegiak – Arauak).

